

Industriako lehengaiak

Jarraipena

2021eko uztailaren 30a





Ikuspegi orokorra

Lehengaien prezioek kasu askotan errekorreko zifrak erdietsi zituzten 2021aren lehen erdian, besteak beste Txinako ekonomiaren susperraldi azkarragatik eta COVID-19aren aurkako txertaketaren hasierak merkatuetan sortutako suspertze-igurikapenengatik. Prezioen igoerak bere horretan iraungo du 2022aren hasierara arte, susperraldirako pakete "berdeen" bultzadari esker. Espero da prezioak egonkortu egingo direla 2022ko bigarren hiruhilekotik aurrera.

Lehengaien prezioak: indize garrantzitsuenen aurreikuspenak

(Indice en USD, 1990=100; % cambio año a año)

	2018	2019	2020	2021	2022
WCF (World Commodity Forecast)	166.9(1,8%)	156.5(-6,3%)	161.0(2,9%)	207.7(29,0%)	204.4(-1,6%)
IRM (Industrial Raw Materials)	169.7(2,2%)	155.1(-8,6%)	150.1(-3,2%)	197.6(31,7%)	195.6(-1,0%)
IRM: Metales	186.5(5,7%)	167.3(-10,3%)	163.3(-2,4%)	226.8(38,9%)	225.9(-0,4%)
IRM: Fibras	128.9(3,0%)	118.4(-8,1%)	112.2(-5,2%)	126.5(12,7%)	124.0(-2,0%)
IRM: Caucho	172.1(-23,4%)	182.6(6,1%)	173.0(-5,2%)	203.9(17,8%)	194.0(-4,8%)

Oharra. WCF (World commodity forecasts) 22 lehengai biltzen dituen indize bat da. IRM (Industrial raw materials) The Economist Intelligence Unit-en prezio indize bat da, zeinetan metalek (altzairua, aluminioa, kobrea, eztainua, nikela, beruna, zinka, burdina) % 65,1eko pisua baitute, zuntzek (kotoia eta artilea) % 27,4koa eta kautxuak % 7,5ekoa. IRMk % 44,4ko pisua dauka WCF indizean. Iturria: The Economist Intelligence Unit.

Nabarmendua:

- Lehengaien prezioek gorakada handia izan dute ekonomi susperraldiaren eraginez

Txinako industria-materialen estokajeak eta industria-jarduera berreskuratu izanak metal arrunten prezioa igoarazi dute. Azken hilabeteotan metal arrunten hornikuntza eskasia izan da nagusi, eta horrek berekin ekarri du kobrea, aluminioa, zink nahiz eztainuaren prezioen igoera, eta baita ere ibilgailu elektrikoetan erabiltzen diren metalena (adibidez paladioa). Espero da lehengaien prezioen indizea egonkortu egingo dela hirugarren lauhilekoan, baina oraindik gorakada txikiak izango dira prezioetan, Biden-en Administrazioak eta beste herrialde batzuek –Japonia, Hego Korea edo EB- azpiegitura eta manufakturako inbertsio-planei aplikatuko dizkieten pizgarrien ondorioz. Igoera metatua % 32koa izango da iazkoarekin alderatuta. 2022aren hasieran ere goranzko joerari eutsiko zaio, gutxienez lehen lauhilekoan.

- Kobre eta aluminioaren prezioak dira azkarren igo direnak

Auto elektrikoaren sektoreak nazioartean izan duen hazkunde azkarrak urte arteko % 48 inguruko gorakada eragingo du kobreako prezioan –Txina delarik mineral horren kontsumitzaile garrantzitsuenak-, eta behin eskaera egonkortutakoan, aurreikusten da goranzko joerari eutsiko diola, prezioa % 2,8 garestituko delarik 2022an. Aluminioaren kasuan aldiz, nahiz eta bere prezioak % 28ko urte arteko gorakada izan duen 2021ean, aurreikuspenek diote bere balioa % 11,1 murriztuko dela 2022an.

- Petrolioaren prezioak goia jo du 2021ean

2021eko martxoan, Brent upelak gaintu egin zuen upeleko 70 USD-ko prezioa, eta aurreikusten da 73 USD-raino iritsiko dela urtearen hirugarren hiruhilekoan eta 71 USD-eko prezioan egonkortuko dela 2022an. LPEE+k bere aurreikuspenari eutsi dio, hau da, 2021-2022an pixkanaka handituko du ekoizpena eta, ondorioz, baita ere eskaintza, hori lagungarri izango delarik prezioak egonkortzeko. Halere, badaude prezioaren aldakortasuna handitu edo gutxitu dezaketean hainbat arrisku geopolitiko, hala nola Iranen eta AEBen balizko akordio bat, COVID-19aren aldaera berriak agertzea edo eskaera handitzea, turismoaren gorakadaren eta nazioarteko mugen irekieraren ondorioz.

Lehengaien prezioen proiektzioa banan-banan

Materias primas	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Caucho (USD/tn)	1,857	2,293	1,757	1,864	1,766	2,081	1,981	2,015	2,067	2,100
Aluminio (USD/tn)	1,604	1,968	2,111	1,791	1,702	2,182	1,939	1,870	1,900	1,940
Cobre (US cent/lb)	220.5	279.5	296.1	272.3	279.8	413.7	432.0	451.3	379.0	386.0
Niquel (USD/lb)	4.35	4.72	5.96	6.31	6.25	7.93	8.67	9.14	8.80	8.70
Zinc (US cent/lb)	94.9	131.2	132.7	115.6	102.6	128.7	124.6	131.5	116.0	112.0
Hierro (USD/tn. métrica en seco)	58.4	71.8	69.8	93.8	108.9	180.6	164.0	150.0	140.0	125.0
Acero (USD/tn)	433.3	599.2	657.1	501.5	486.5	774.0	703.8	667.5	597.0	610.0

Iturria:

The

Economist

Intelligence

Unit



Lehengaien panorama

Aluminioa

- **Eskaera.** Asiako herrialdeetan eta AEBetan espero den hazkunde azkarrak, Txina eta Estatu Batuak buru direla, eskaeraren gaineko presioa eragin du. Aluminiozko produktu landu eta erdi-landuen eskaera irmo mantenduko da 2021eko bigarren hiruhilekoan, lehengai honen hornikuntza ziurtatu ahal izateko bere prezioaren etengabeko igoera gorabehera. Kontuan hartzekoak:
 - Txinak aluminioaren eskaera handitzen jarraituko du 2021eko 3. hiruhilekoan.
 - Estatu Batuetako eskaera irmo mantenduko da.
 - EBko aluminio eskaeraren hazkundera BPGarena baino handiagoa izango da.
 - Asiako herrialdeen eskaera indartu egingo da hazkunde ekonomikoa berreskuratzearekin batera.
- **Hornikuntza.** Eskaintza egonkor mantenduko da, eta ekoizpenak goranzko joera izango du mundu osoan, hornikuntza-kateen kudeaketa egokia bermatzeko. Txinak aluminioaren ekoizpena mugatzeko onartua duen estrategia politikoa gorabehera, espero da aluminioaren ekoizpena % 5 inguru haziko dela. Kontuan hartzekoak:
 - Prezio handiek gaitasun berrien sorrera bultzatuko dute galdategietan.
 - Txinak energia arloan dituen arazoek bere hazkundera mugatzen dute, baina oraindik ez dute murriztu ekoizpena.
 - Golkoko Kooperazio Kontseiluko herrialdeak eta Errusia izango dira ekoizpenaren hazkunderaren eragile nagusiak.
 - Ipar Amerikako ekoizpena handitu egingo da, Intalco enpresaren itxierak eragindako inpaktua gorabehera.

Aluminioaren eskaera eta hornikuntza

('000 tonnes unless otherwise indicated)					
	2018	2019	2020	2021	2022
Global production	63,774	63,265	64,622	66,902	68,476
Global consumption	64,636	64,312	62,417	66,379	68,737
Balance	-862	-1,048	2,205	523	-260

Iturriak: WBMS; London Metal Exchange (LME); International Aluminium Institute (IAI); The Economist Intelligence Unit.

Kobrea

- **Eskaera.** Ekonomiaren susperraldiak eta ekonomia garrantzitsuenean sustatutako pizgarri indartsuek azpiegiturak eraikitzeke planak bultzatu dituzte, eta inbertsio garrantzitsuak eragin dituzte energia berriztagarrietan, eta horrek kobreaken eskaera handituko du (orain arte Txinaren gehiegizko horniduragatik bultzatu izan dena). Kontuan hartzekoak:
 - Txinako izakinen metaketa-zikloak itxurazko kontsumoa puzten jarraitzen du.
 - Koronabirusagatik infekzioek kontrako haize berriak sortu dituzte herrialde gorakorretan.
 - EB27ren BPGaren hazkundera handitu egingo da 2021eko bigarren hiruhilekotik aurrera.
- **Hornikuntza.** Latinoamerikan meatze-ustiategi berriak irekiko dira eta zabalkunde-proiektuak abiatuko dira kobreaken errekorreko prezioaren ondorioz, eta horrek ekoizpena bultzatuko du eta eskaintza hazaraziko du pixkanaka. Kontuan hartzekoak:
 - Koronabirusagatik infekzio-tasa altuak arrisku handia dira meatzetako ekoizpenerako Txile bezalako herrialdeetan.
 - Meatze-proiektu berriek Kongoko Errepublika Demokratikoko ekoizpena bultzatuko dute 2021-2022an.
 - Grasberg meatzeko kobre ekoizpenak gora egingo du berriz 2021-2022an.

Kobreaken eskaera eta hornikuntza

('000 tonnes)					
	2018	2019	2020	2021	2022
Production	23,652	23,477	23,942	24,408	24,876
Consumption	23,936	23,997	24,885	24,750	25,232
Balance	-283	-520	-942	-342	-356

Sources: WBMS; The Economist Intelligence Unit.



Kautxu naturala

- **Eskaera.** Mundu mailako kontsumoaren urte arteko hazkundera % 4,9koa izan da 2021ean, eta horrek zerikusi zuzena du erdi-eroaleen eskasiarekin. Halere, aurreikusten da kautxuaren kontsumoak gora egingo duela nazioarteko aire-garraioari berrekiten zaionean, ibilgailuen ekoizpena pixkanaka suspertzen hasten denean eta lurralde arteko mugak altxatzean. Bultzatzaile nagusiak:
 - Kautxu naturalaren kontsumoaren hazkundera moteldu egingo da Txinan 2021. urtearen amaieran.
 - Kautxu naturalaren kontsumo-aurreikuspenek beheranzko joera dute Indian 2021. urterako.
 - Baliteke zerga-pizgarri masibo batek kautxu naturalaren erabilpena bultzatzea AEBetan 2021-2022an
 - EBko eskaerak suspertzen hasi behar luke 2021eko bigarren seihilekoan.
- **Hornikuntza.** Espero da mundu mailako eskaintzak % 3,8ko hazkundera izango duela, eta zifra hori egonkortu egingo dela 2022an zehar. Herrialde ekoizle garrantzitsuenek diru-inbertsio handiak egingo dituzte birlanaketa-programetan, eta horrek ondorioak izango ditu etorkizunean. Bultzatzaile nagusiak:
 - Thaiandiako ekoizpena bere onera itzuliko da erronka handiak gaudituz ostean.
 - Prezioen suspertze-zantzuen ondoren, Indonesiak gai izan behar luke bere ekoizpena handitzeko 2021ean.
 - Kautxu naturalaren Indiako sektoreak ez du etorkinen lan-eskurik.

Kautxu naturalaren eskaera eta hornikuntza

('000 tonnes unless otherwise indicated)					
	2018	2019	2020	2021	2022
Supply	13,891	13,702	12,945	13,405	13,703
Demand	13,767	13,640	12,702	13,330	13,742
Balance	124	62	243	75	-39

Iturriak: WBMS; London Metal Exchange (LME); International Aluminium Institute (IAI); The Economist Intelligence Unit.

Altzairua

- **Eskaera.** Txinak -munduko altzairu kontsumitzaile handienak- batez beste % 3 handituko du bere eskaera 2021ean eta 2022an, eta 1100 MMT-ko errekorreko zifra erdietsiko du 2022an (kontsumo globala 2000 MMT-koa izango da). 2021ean gorakada handiak gertatuko dira (% 9koak) mundu osoan, eta % 5eko hazkundera espero da 2022rako. Kontuan hartzekoak:
 - Europako kontsumoa motelago suspertuko da merkatu garrantzitsuetan.
 - Badirudi AEBetako altzairu kontsumoa indar handiz suspertuko dela 2021-2022an.
 - 2020an, altzairu eskaerak behera egin zuen Asia osoan, Txinan izan ezik (+ % 9).
- **Hornikuntza.** Altzairu-ekoizpenak urte arteko % 14ko hazkundera izaten jarraitzen du -Txinako altzairua buru dela-, prezioen eta marjinen gorakadak lagunduta. Altzairuaren ekoizpen errekorrak (1970 MMT-koa) munduko ekoizle nagusi bihurtu du Txina, kuotaren % 58 ingururekin (1,05 MMT). Kontuan hartzekoak:
 - Altzairuaren ekoizpenak gora egiten jarraitzen du Txinan, baina gobernuak erabaki du CO2 isurketak murriztuko dituela siderurgia sektorean, eta horrek inpaktu handia izan dezake sektorean.
 - Indiak eta Estatu Batuek gaitasun berriak gehitu dizkiote altzairuaren ekoizpenari.
 - Burdin mineralaren prezioak bikoiztu egin ziren 2020an, eta kalkulatu da goia jo dutela edo sabaitik hurbil daudela.

Altzairuaren eskaera eta hornikuntza

('000 tonnes)					
	2018	2019	2020	2021	2022
Production	1,826	1,880	1,864	1,965	2,031
Consumption	1,836	1,889	1,875	2,001	2,061
Balance	-10.4	-9	-11	-36	-30

Sources: WSA; The Economist Intelligence Unit.



I. Eranskina. Lehengaien prezioak banan-banan

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Rubber (US\$/tonne)	1,857	2,293	1,757	1,864	1,766	2,077	1,981	2,015	2,067	2,100
Cotton (US cents/lb)	74.2	83.6	91.4	77.9	71.9	92.1	88.1	85.0	80.0	79.0
Wool (Aus cents/kg)	1,277	1,283	1,244	1,232	1,195	1,191	1,195	1,195	1,195	1,195
Aluminium (US\$/tonne)	1,604	1,968	2,111	1,791	1,702	2,265	1,939	1,855	1,900	1,940
Copper (US cents/lb)	220.5	279.5	296.1	272.3	279.8	412.2	432.0	461.2	379.0	386.0
Lead (US cents/lb)	84.9	105.0	101.8	90.6	82.7	94.0	97.0	95.0	96.0	98.0
Nickel (US\$/lb)	4.35	4.72	5.96	6.31	6.25	7.86	8.61	9.21	8.80	8.70
Tin (US\$/lb)	8.16	9.11	9.14	8.46	7.77	12.97	13.04	12.79	10.70	10.50
Zinc (US cents/lb)	94.9	131.2	132.7	115.6	102.6	128.4	124.6	133.7	116.0	112.0
Iron Ore (\$/ dry metric tonne unit)	58.4	71.8	69.8	93.8	108.9	183.0	167.0	163.3	150.0	145.0
Steel (US\$/tonne)	433.3	599.2	657.1	501.5	486.5	774.0	703.8	661.7	597.0	610.0
Gold (US\$/troy oz)	1,249	1,258	1,269	1,392	1,770	1,766	1,593	1,462	1,450	1,475
Palladium (US\$/troy oz, London)	618.0	874.4	1,034.4	1,542.4	2,204.6	2,667.3	2,317.5	2,085.0	2,075.0	1,990.0
Platinum (US\$/troy oz)	987	948	880	864	883	1,177	1,159	1,100	1,175	1,205
Silver (US cents/troy oz)	1,715	1,707	1,571	1,622	2,054	2,632	2,558	2,521	2,300	2,280
DAP (\$/tonne)	315.8	323.0	393.4	306.4	300.8	495.0	440.0	380.0	382.0	394.0
Phosphate Rock (\$/tonne)	110.5	89.7	87.9	88.0	76.1	95.0	90.0	99.0	103.0	105.0
Oil: Brent (US\$/b)	44.0	54.4	71.1	64.0	42.3	68.5	71.0	65.5	61.0	55.5
Oil: OPEC reference price (US\$/b)	40.1	51.6	66.9	60.2	39.8	64.4	66.8	61.6	57.4	52.2
Oil: WTI (US\$/b)	43.2	50.9	64.8	57.0	39.3	65.3	69.6	65.9	61.3	55.8
Natural gas (US\$/mmBtu, Europe)	4.56	5.72	7.68	4.80	3.24	7.68	7.05	4.99	4.90	5.00
Natural gas (US\$/mmBtu, US)	2.49	2.96	3.16	2.57	2.02	3.03	3.12	3.08	3.20	3.30
Liquefied natural gas (US\$/mmBtu, Japan)	7.37	8.61	10.67	10.57	8.31	9.36	9.85	9.28	7.75	7.80
Coal (US\$/tonne, Australia)	66.1	88.5	107.0	77.9	60.8	104.1	78.5	63.7	60.0	56.0

Source: The Economist Intelligence Unit.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



BasqueTrade
& Investment

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia



Urkixo Zumarkalea, 36-5 Planta Plaza Bizkaia
Eraikina 48011 Bilbao info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60